

IRUÑA

EDIKTUA

8. ARAUA, HAUR ESKOLETAKO HEZKUNTZA- ETA LAGUNTZA-ZERBITZUARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUENA, ALDATZEA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Behin Udaleko Osoko Bilkurak, legezko den quorumarekin, bi mila eta hogeita bateko otsailaren 4an hasiera batez onetsirik, eta jendaurreko epea inolako erreklamaziorik gabe iragan eta gero, behin betiko onetsi da 8. araua –Haur Eskoletako hezkuntza- eta laguntza-zerbitzuarengatik ordaindu beharreko prezio publikoak erregulatzeko dituen– honela aldatzea, arauari xedapen iragankor bat gehituta, honako eduki honekin bat:

“Xedapen Iragankorra

2021-2022ko ikasturterako, Iruñeko Udalak eskolatzeko-tarifak murriztuko dizkie seme-alabak Udalaren Haur Eskoletan eskolatzen dituzten familiei, halako moduan non ez baitute ordaindu beharko kontzeptu horrengatik Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ezartzen duen tarifa.”

Hori guztia argitara ematen da jende orok jakin dezan. Iruñean, bi mila eta hogeita bateko apirilaren zortzian.

Enrique Maya Miranda, Alkate Udalburua.